

IRITZIA
Jon Gurrutxaga

ERREPORTAIA
Injinerutza
ikasketak IMHn

BARRREN

1997ko martxoaren 21a
V. urtea - 188. zkia

KALE INKESTA
Ba al duzu 97ko
Udal aurrekontuen
berri?

UDALETXETIK
IU eta PPren
erantzunak
alkatearen
salaketei

GEHIGARRIA
KiliBARRREN

BERBETAN
Txaro
Etxeberria,
piano
irakaslea

KIROLA
Ohorezko Ligako
jubenilen futbol
taldea

KULTURA
Korrika
Elgoibartik
pasatu da




Elgoibar Korrika



“Oinak , zangoak, hankak korrikan. Baina ez hanka egiteko”. Kol do Ei zagi r r e

GARBINE

EDERGINTZA



Azal mota guztietarako tratamenduak

GORPUTZ GUZTIKO
DEPILAZIOAK

AURPEGIKO
TRATAMENDUAK
ETA MAKILAIA

GORPUTZEKO
TRATAMENDUAK,
MANIKURA ETA
PEDIKURA

Algen tratamendua,



- Beroa
- Temperatura baxukoa
- Elektrikoa

- Azido glikolikoa
- Kateobitala
- Hidratazioa
- Regenerazioa
- Zimurren aurkakoa
- Aurpegi garbiketa

- Reafirmanteak
- Zelulitis tratamenduak
- Masaia
- Papparreko liftina

SOLARIUMA



10 sesiorekin, bat dohainik

P. M. Urruzuno, 27 • Tel: 74 31 32


ZEZEN-BIDE

Auto, autobus, kamioi
eta motorrentzako
gida-baimenak



%10eko
deskontua





JON GURRUTXAGA

Gazteria musika egarriz

Betidanik izan da herri hau musika arloan oparoa; Musika Banda badaukagu, Udal Txistulari Taldea, Bereziartua Musikeskola... Beraz, ikus daitekeenez, ez da, ez, musika zaletasunik falta elgoibartarron artean.

Hala eta guztiz ere, aipatu zaletasun hau beste ikuspegi batetik aztertzea gustatuko litzaidake, gaurko gazteok dugun musika egarri asegaiz horretatik, hain xuxen ere. Ikuspuntu ezberdina diot, izan ere, ezpairik gabe, oso ezberdina baita arestian aipaturiko taldeen egoera eta gazteok sortzen ditugun musika taldeena. Aldagai nabarmenena arlo ekonomikoa izango litzateke. Baina, nire nahia ez da, inolaz ere, musika munduaren bi alderdi hauek konparatzea; beraz, bigarrego honetan zentratuko naiz.

Bai Euskal Herrian, baita Elgoibarren ere, urteetan zehar makina bat talde sortu dira. Hortaz, 60. hamarkadako musika anglosajoiaren eraginez gaur egunera arte musika taldeen hazkundea izaugarria izan da. Honela, garai hartako "Expresión sonora" bezalako taldeak aitzindari izanik, gaur egun ere badugu arrakasta izan duen talderik, "Ehun kilo" kasurako.

Argi dago, beraz, gazteok dugun musika egarria ez dela atzo goizeko kontua. Honela, gazteotako asko ez gara irratia entzun edo eta kontzertuak ikustearekin asetzen, eta nolabait gure sentimenduak musikaren bitartez adierazten saiatzen gara.

Bestalde, gaur egun ez da batere erraxa horrelako talde bat sortzea, izan ere, bidean oztopo anitz topatzen baititugu. Honela, gaur egun musika talde bat sortzeko orduan bi eragozpen nagusirekin topo egiten dugula uste dut: alde batetik, musika ekipaia eta instrumentazioaren kostua, eta bestetik, entsaiatzeko lokal baten beharra (ziur asko oztoporik nagusia). Lehenaren kasuan, erremedioa, argia, eta era berean, logikoa da: aurreztea. Baina, egia esan, gurasoek astean ematen digutenarekin instrumentua eta entsaiatzeko ekipaia erosteko aurreztea aski zaila da, eta urteetako lana da gainera (honekin, noski, ez dut, ez, aurrezteko inolako ait-zakiarik jarri nahi). Bigarren eragozpenaren aurrean ere arlo ekonomikoa aipatu behar dugu, izan ere, entsaietarako lokala gertukoren batek uzten ez badizu, hau ere alokatu egin behar baita.

"Gazte asko nolabait gure sentimenduak musikaren bitartez adierazten saiatzen gara."

Dena dela, musika talde bat sortzea lortu dugunean, eta beraz, kontzertuak eman eta musika egiteko amets hori bete zaigunean, taldeen eta beraien partaideen artean lehia-kortasun jator eta sano bat izaten saiatu behar dugu. Izan ere, tamalez, askotan horrelakoak ere entzuten baitira: "Honek besteak baino askoz ere hobeto jotzen du kitarra", edo, "hori pakete bat da...". Hortaz, tontakeriak alde batera utzirik, goza dezagun gure taldeez eta gure musikaz.

Azkenik, talde bat sortzeko asmotan dau den gazte guztiei, animo! Benetan amets polita baita.

Atal hau ez da **BARREN**en editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak berea aukeratzen du.

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 74 41 12
Publizitatea:
☎ 74 37 04
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA	Elgoibarko Izarra
LAGUNTAILEA	Elgoibarko Udala.
ZUZENDARIA	Ainhoa Lodoso.
ERREDAKZIO KONTSEILUA	Andres Alberdi, Rosa Agirregabiria, Mikel Kortabitarte.
KAZETARIAK	Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro.
PUBLIZITATEA	Myriam Aldazabal
MAKETATZAILEAK	Mikel Cornejo.
ADMINISTRAZIOA	Amaia Martin M. Angeles Ortuoste, Rafa Alvarez.
KOLABORATZAILEAK	Irati Agirreazaldegí, Gemma Agirregomezkorta, Ion Arrieta, Agurtzane Arriola, Edurne Bilbao, M. Angeles Exposito, Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza, Jon Gurrutxaga Antton Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León, Jokin Martinez, Juan Luis Mugertza, Ixdor Solupe, Leire Urkidi, Pello Rubio Unai Villena eta Julen Zabaleta.
BANAKETA ARDURADUNA	Imanol Larrañaga.
INPRIMATEGIA	Gertu koop. E.
TIRADA	4.000 ale.
LEGE GORDAILUA	SS-1.038/92
ISSN	1133-021X

Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.



Kutxa fundazioa
Fundación Kutxa



Maitasuna legeztatu daiteke ala?

Pertsonen arteko maitasuna eta harremanetarako eskubi-deak gizarteko lege guztien gainetik zeudelakoan nengoen. Gizarajoa! Elizak eta diputatuengatik kongresuak eskaintzen diguten "harreman menutik" egin behar dugu aukera denok, nahiz eta menuan gustuko jakirik aurkitu ez. Eta menu horretatik irteten bagara, garesti ordaindu behar dugu, hor ikusiko ditugu boterearen hatzapar luze eta zorrotzak gure begien parean.

Zergatik ezin dut nik nahi dudarekin (sexu berekoa izan ala ez) eraiki nire/gure bizitza? Nori egiten diot kalte nire sexu bereko pertsonarekin bizitzea erabakitzen dudanean? Elizari akaso? Euskal Herrian ikutu ere egin ezin den familiari behar bada? Haurrik ekarri ezin dugu la izango da arazoa igual?

Demokrazia orain arte asmatu den sistema libreena izanik, Estatu espainiarrean ezin dugu gure bikotea aukeratu. Mutil batek ezin du beste mutil batekin bizitzea normala gauzatu. Nesken kasuan beste horrenbeste, noski. Legeek ez digute lagatzen.

Batzuek gogoan izango duzue lehen zelan izaten ziren gurasoak ezkonkidea aukeratzeko zutenak. Orain horrelakorik ez dago (seguru?), aukerak handitu egin dira baina beti ere lege nagusien itzalean mugituz gero.

Baina legeak aldatzeko daude, batez ere gaizki daudenak. Eta hari honi tiratuz, entzungo zenuten zelan egin duen atzera izateko bikoteen legea aldatzeko proposamenak. Kosta behar zaizue homosexual eta lesbiana taldeei gizarte "aurrerakoi" honetan zuen eskubiudeak lortzea. Halere, ez etsi eta segi lanean maitasunak eta askatasunak lege atzera-koiak apurtu arte.

A.L.

Informazioa eta manipulazioa

Zazpiki Irratiak, urtetan zehar Egin egunkariari erakunde ofizialek egindako boikota zein Pepe Rei Egin-eko kazetariaren kontra egindako epaiketa salatu nahi du.

Informazioa gizartea kontrolatzeko tresna bezala erabiltzen da gaur egungo gizartean. Modu ezberdin asko daude Estatuak, hedabideak erabiliz, herritarrak bere nahiera moldatzeko. Hartzailagoaren arretra futbol partidu eta funtsezko edukirik gabeko telebista programetara bideratzen dute, igorriko den informazioa aukeratu eta aukeratutakoa kontestutik kanpo ateratzen dute, moztu, eraldatu... manipulatu egiten da. Helburua bakarra da; herritarrak zenbat eta desinformatuagoak egon hainbat eta manipulagarriagoak izango gara, izan ere gaurkoan gizartean informazioa kontrolatzen duenak pertsonen iritziak kontrolatzen baititu.

Pepe Rei, kontrol horren zirrikietatik sistemaren trapu zikinak ateratzen diharduen kazetaria da. Horregatik, eta ez beste ezergatik, adierazpen askatasunari eraso zuzen eta bortitza eginez hainbat politikarik bere lana isilarazi nahi dute. Demokrazia hitza horrenbeste erabiltzen duten horiek, faxismoaren garaiko teknika berdinak erabiltzen dituzte traba egiten dietenen ahotsak isilarazteko: gezurrak, epaiketa fartsak... jakin bezate guztiek ez dutela lortuko gizarte justu eta solidario bategatik borrokatzen dugunon ez-tarria isilaraztea. Eta lanean jarraituko dugula igortzen duten informazioarekiko kritikoak izaten eta beraien isilarazi nahi dituzten gertakari buruz informatzen.

Aupa Pepe Rei!!
Zazpiki Irratia

Aste Santuko oporrak direla eta, datorren astean ez da BARRENik egongo. Berriz kalean izango gara datorren apirilaren 4ean. Ordurarte, ondo pasatu oporrak.

KEXAK

◆ **Neska bat** etorri da BARRERera **Sallobenteko aparkaleku eta erreka ingurua zikinkeriaz beteta dagoela** esateko. “Zergatik jendeak ez ditu zakarrontziak erabiltzen?” galdetzen du.

◆ **Ikastolako 4. mailako ikasle talde batek** kexa jarri nahi du **Korrikan ez dietelako parte hartzen lagatzen**, “dirua eramateko bialdu ziguten eta gero 5.

mailatik beherakoek ezin dugula korrika egin esan ziguten eta ez zaigu bat ere ondo iruditzen”.

◆ Sallobente inguruan ibiltzen den herritar batek komentario hau egin nahi du: **“negarguria ematen dau San Lorentzo alderajun eta pinuak ez diazen arbolak nola botatzen ari diazen ikustiak. Zer gertatu bihar da?”**




◆ Herritar batek honako kexa hau azaldu nahi du: **“Uler-tezina da nola uzten duen Udalak asteburuetan kamioiak Nafarroa plazaren erdian aparkatzen** behin eta berriz. Batzuetan galtzadaren erdia ere okupatzen dute. Nire ustez kamioiak ez dira Alzola dorretxe berrituaren zat lagungaririk onenak”.

TXALOAK

◆ Asteazken iluntzean Herriko Antzokian izan zen soinu eta txelo kontzertua benetan bikaina iruditu zitzaioela esateko deitu digu irakurle batek. “Txalo bat eta zorionak. Hala ere, esan nahi dut, pena bat izan zela 20 bat lagun baino ez egon izana kontzertuan. Argi dago, jendeak nahiago izan zuela Euskaraokearen muntaiari begira egotea, musika klasikoaren edertasuna apreziatzea baino. Asko daukagu ikasteko”.

BAI, ESAN?



Roman Garate
Jesuita

Aste Santua ate joka daukagunez, aste honetako deia **Roman Garate jesuita** elgoibartarrari luzatu diogu. Aste Santuaren inguruan dauden hainbat gairi buruz berba egin nahi izan dugu berarekin. Ikus dezagun zer den esan diguna.

- **Zer esanahi dauka zuretzat Aste Santuak?** - Urte osoko asteak dira, berez, santuak! Jesukristorenak baitira. “Santua” deitzen zaio, hala ere, liturgia urteko azken asteari, bertan, SANTUA, Jesukristo alegia, bereziki ematen zaigulako! Bere neurri gabeko maitasunean, Bere gorputz-odolekin kosmos osoa oparitzen digularik eukaristian, eta baita ere Bere Jainko Biziaren Piztuera.

- **Aste Santuak ez al du bere izakera erlijiosoa galdu?** - Aldatu esango nuke. Eukaristian ogia eta ardoa, lana eta jolasa, nahigabea eta poza, gizakiari darion guztia -kosmos osoa- jasotzen da kristoren gorputz-odolean. Hori, GAURKO egunetan GAURKO erara bizitzen da. Hemengo askok, esate baterako, Meditarreneo aldeko hirietan ospatuko dute Aste Santua eta... euskaraz gainera! batzuetan.

- **Esango al diguzu zer egin behar duzun Aste Santuan?** - Hirurren (Triduo) santuan eukaristia ospatu nere anaia-arreba kristauekin, goxotasun eta maitasun bereziz. Baita ere, atsedean-atsegin egun bezala gozatu asteko egun eder-sakon horiek.

- **Erljioak beti izan du pisu handia Euskal Herrian. Etengabeko gainbeheran ikusten al duzu?** - Erljioak badu, gaur ere, garrantzia, eta haundia, gure Euskal Herrian. Ez dezagun ahantz, esate baterako, “liberté, égalité, fraternité” oihua, Kristau oihu-irrintzia dela, funtsean. Gogora San Mateoren azken epaia: 25, 31-46. “Etor-kizuna itxaropentsu ikusten dut, bada, ze Kristo dugu, gaur ere, gurekin eta gure Euskal Herriko gazte maitekin.



1997ko martxoaren 11an, 78 urte zituela hil zen **BENITO JUARISTI URANGA**ren sendiak bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Injinerutza ikasteko

IMHk inkesta bat egin zuen Deba Behoko 400 enpresen artean hezkuntza sistema berri baten aurrean euren jarrerara ezagutu asmoz. Enpresek proiektu konkretuetarako perfil konkretuak nahi zituzten. Horrela bada, Frantzian 1991. urtetik martxan da goen Txandakako Injinerutza azertu eta iazko irailean IMHn martxan jarri zuten, lana eta ikasketak uzartuz. 27 ikaslek osatzen dute taldea. Horietako batzuk proiektu berri honetako partaide diren enpresek proposatutakoa dira. Beste batzuk, berriz, FP2 do Modulo3 tik etorriak. Behean Ana, Aitor, Ugor eta Joseba.

Hortik aurrera, Enpresa bakoitzak proiektu bat proposatu eta ikasle bat aukeratu du. Ikasle honi egun erdiko lan-kontratua egiten dio eta ikasketen matrikula ordaintzen. Txandakako Injinerutzan biak, lana eta ikasketak lantzen dira. Goizez enpresan egiten dute lan 4 orduz eta arratsaldean IMHn beste lau orduz ikasten dute. Ikasketa hauek 3 urteko iraupena dute. Amaieran ikasleek Goi Mailako Injineru titulua jasotzeaz gain, enpresan lan kontratua egiten diote.

Lau hilabete pasa dira IMHk Txandakako Injinerutza ikasketak martxan jarri zituenetik. Udazkenean hirugarren taldeak ekingo dio aipatu ikaskei eta IMHk prestakuntza ikastaro batzuk antolatu ditu ikasleei sarrera errazteko asmoz.

Oraindik orain denbora gutxi pasa bada ere martxan jarri zenetik, Txandakako Injinerutzako lehen promozio


“zorioneko 27 aitzindariak” garbi dute esperientzia honek ikasketa eta heziketa ohituren aldaketa bat suposatu duela. Ana, Igor, Aitor eta Joseba hezkuntzako arlo desberdinetatik datozen “ikasle pribilegiatuak” dira. Laurek zalantzarik gabe, “etorkizuneko hezkuntza” bezala definitu dute Txandakako Injinerutzak planteatzen duen sistema berria.

Ikasketez gain enpresa ere baloratzen da

Ana Caballero gaur egun tekniko komertzial bezala prestatzen ari da IMHn. Anak injinerutza ikasketak ohiko sistema tradizionalan hasi zituen baina lehenengo kurtsuan antzeman zuen “ikasketa hauek behatzeko moldatuak daudela. Kurtsoz kurtsu ikasleak kanporatzeko moldatuak daudenez ikasten baino azterketak gainditu nahian energia gehiago gastatzen genuen”. Esperientzia hau beste hiru kasuetan ere errepikatzen da. Joseba Zamarilloak injinerutza ikasketak hasi eta urtebetera utzi egin zituen. Orain kalitate arloan espezializatzen ari da eta zera dio: “ikasten ikasi” behar dela, eta horretan ari direla Txandakako Injinerutzan. Antzerako zerbait gertatu zitzaion Aitor Lopezi. UBI eta Modulo III egin ondoren “injinerutza ikasketak egitea pentsatu ere ez nuen egin hitzak berak sortzen duen errespetuarengatik. Txandakako Injinerutzarena planteiatu zidatenean, berriz, ez nuen zalantza izpirik ere eduki”. Bere espezialitatea produkzioa da eta txandaketa IMHn bertan egiten ari da. Igor Arriolak produktuaren garapena aukeratu du espezialitate bezala eta “ikasketak ezezik hauei enpresa eta kasu partikular bakoitzean ematen zaion erabilera ere baloratzen da” azpimarratu digun.

IMH, enpresa eta ikaslearen arteko harremana

Txandakako Injinerutzaren alderdirik adierazgarrienetako bat IMH,



era berria

ikasle eta enpresaren arteko erlazio haustezina da. Enpresak proiektu konkretu bat proposatu eta ikastetxeak egindako eskaintzaren arabera ikaslea aukeratu du. Enpresa arduratzen da ikaslea kontratatzeaz eta hau injeneru-ikasle bihurtzen da. Ana Caballerok esan digunez, “bene-benetako erlazioa dago. Hasieratik harritu ninduen, positiboki beti ere. Erabateko paralelismoa dago eskolan ikasten dugunaren eta Goratun, kontratatu nauen enpresan planteiatzen diren arazoaren artean. Adibidez, kurso hasieran komunikazioa ikasgai bat zela jakitean harrituta geratu nintzen, hasieran ez bainion inolako erabilera praktikorik ikusten. Halere, gero are gehiago harritu nintzen gai honi enpresan ematen zaion ikuspuntua eta honek enpresako arlo desberdinetan sortzen dituen arazoak ikusita”. “Erlazio hau logikoa da” dio Igor Arriolak, Giza-Ola enpresan lan egiten duen ikasleak, “enpresa bera da proiektua planteiatzen dizuna eta zuzan konfidantza jartzen duen neurrian konpromezuak hartu eta bete ditzazula eskatzea logikoa da.” Aitor Lopezek gaineratu duenez, “erabiltzen ditugun adibide eta modeluak guztiz errealak dira. Hezkuntz sistema honek gure enpresetako adierazle, datu eta balantzeen analisiak ere aztertzen ditu. Beraz, ez dugu modelu hipotetikoek ere ez eta abstraktoek ere, enpresan pasatzen ditugun 4 orduetan ikusten ditugun gauzez baxik”. Joseba Zamalloak Valentziagan lan egiten

du. Bere hitzetan, “komunikazio sare bikoitz bat sortzen da. Enpresako informazioa institutura iristen da eta institutukoa enpresara. Honek mentalitate aldaketa bat suposatzen du bai gudan bai gudan konfidantza jarri duten enpresariengan.”

Enpresariak ere bide berriak jorratzen

Enpresariak ere, sistema berri batera moldatu beharra izan dute. Izan ere, etorkizun hurbil batean enpresa horietan lan egingo duten ikasleek hezkuntz sistema berri batean sartu eta enpresak ere proiektu berri batean inplikatzeko ez baita erraza urte askotan beste formula batekin lan egin izan denean.

Ez dirudi erraza izango denik hamarkada askotako sistema aldatzea. Halere, enpresetatik ikasleei jarraipena egiten zaie eta planteiamendu berriak sor ditzakeen zalantzak ezabatu egiten dira horrela. Arazo eta zalantzei aurre egiteko era jarraipena da. Orain arte balorazioak positiboak dirudi eta ikasleek enpresan duten inplikazioak

hezkuntz prozesuari ikuspegi berri bat erantzen dio. Ikasleen hitzetan, “hezkuntz orokorra jasotzen dugu baina, era berean, gutako bakoitzak jorratzen dituen aspektu konkretu eta partikularrekin aberasten da. Enpresan gai batzuk planteiatzen dizkigute eta guk klase teorikoan gai hori aztertu eta lantzea eskatzen dugu. Honela, gure proiektua defendatzerakoan nolabaiteko konpetentzia sortzen da gure artean, beti ere oso aberasgarria dena guztiontzat”. Anak azaldu digunez, “gerta daiteke niri produktu baten alderdi komertziala interesatzea baina kalitatean lan egiten duen ikaskide bat bere espezialitateari buruzkoak azaldu eta gai hori lantzen saiatuko da azkenean, nik bere gaia eta berak nirea ulertu eta barneratuz. Guztion formazioa aberastuz”. Laurak ados daude enpresaren ikuspegi orokorra eta produktu bakoitzaren alderdi guztiei buruzko ezagutza hobetzen dela esatean, “ez du zerikusirik orain arte ezagutu dugun zati-tutako hezkuntz sistemarekin”.

Constan Nuñez




Txandako Injinerutzako lehenengo promozioan 27 ikasle daude.

Ezagutzen al dituzu Udal aurrekontuak?



TXARO ILLORO
39 urte, botikako langilea

Ez dakitz ezebez Udaletxe-ko kontuei buruz. Udaletxiak zertan gastatzen daban jakin biharko genduke ze, azken finian, gure dirua da, ez? Interes faltia dakagu.



JUANITO URRESTI
43 urte, espezialista

Ez dute ondo administrazio-tzen. Herritarren iritzia kontuan izan beharko lukete. Esaterako, uraren igoeraren aurkako sinadurak ez zituzten aintzakotzat hartu.



VICTOR MANZIDOR
45 urte, enboteilatzailia

Idearik ere ez. Zeozer ikusi naban eta pasada bat eman nion baina gauza gehixegi ez dakitx. Aurretik ez dogu interesik jartzen eta gero kejau eitzen gera.




M. LUISA AGEA
40 urte, etxeakoandrea

Ez dakit ezer. Aurrekontuei buruz sekula ez naiz arduratu; beraz, ezin dut esan gure diruak ondo edo gaizki gastatzen dituzten.



VICTORIA MEDIAVILLA
64 urte, etxeakoandrea

Idearik ere ez dut. Aurrekontuak interesatzen zaizkio, noski, edonori, baina ez diogu kasu gehiegi egiten. Ez da informazio falta, komodidadea baizik.



FERNANDO ETXEBERRIA
43 urte, mekanikoa

Ez ditut ezagutzen. Ez diot garrantzirik ematen. Iruditzen zait Udalean dirua administratzen dabiltzanak badakitela zertan dabiltzan. Nik badut konfidantza.

 Aurten **ABERRI EGUNA**
Baraldoko (Bizkaia) Udal Pilotalekuan ospatuko da, honako egitarauarekin:
12,00: kalejira
14,30: Bazkari herrikoia
17,00: Mitina
Bazkaria: **2.300** pta. Txartelak martxoaren 24 baino lehen jaso behar dira.
Interesatuak deitu **74 08 22** telefonora (Karmele).

 **Bulcartu S. Coop.**
Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR
MEKANIZATUEN TAILERRA


HERRI-GAIN
ERRETEGIA
San Pedro auzoa 4
(74 30 40) ELGOIBAR

Zer dira Udal aurrekontuak?

Edozein herritako Udaletxek, urte osoan bilduko dituen diruak eta horiek nola gastatuko dituen jaso-tzen dituen plana dira aurrekontuak. Elgoibarko Udalak duela pare bat aste onartu zituen 97rako aurrekontuak.

Nork diseinatzen ditu aurrekontuak?

Ezer baino lehen, Gobernu Batzordeak urteko aurrekontuen irizpide orokorrak ezartzen ditu (hau da, aurrekontuak iazkoa baino baxuagoa izan behar duen...) Horren arabera Udaletxean dagoen sail bakoitzak (kultura, ongizatea etab.) urteko gastuak zein izango diren aurkezten dizkio Haziendako tekniko eta Hazeindako buruari. Haziendako arduradunak sarrerak eta gastuak parekatuak izan daitezten saiitzen dira, sail bakoitzak eskatzen duen diru kopurua ajustatuz. Aurrekontuen diseinua eginda dagoenean Gobernu Batzordera eramaten da. EAJ-EA eta PSEk osatzen duten tripartitok oniritzia eman ostean Hazienda Batzordean aurkezten dira gainontzeko alderdiek euren proposamenak egin ditzaten. Ondoren plenoak erabakitzen du aurrekontu horiei oniritzia eman ala ez.

Nondik ateratzen du Udalak dirua?

Diru iturri garrantzitsuenak bi izan ohi dira: zergak batetik, eta diru laguntzak bestetik. Herritarrek hilero edo hiru hilabetero ordaintzen ditugun zergak, zaborra dela, ura dela, argia dela.... diru horiek guztiak Udalaren poltsikora doaz. Bestetik, Diputazioaren eskutik Udalak laguntza inportantea jasotzen du. Honez gain, beste sarrera batzuk ere badaude: Udalaren ondasunek sortutakoa, Udalak egindako inbertsioen salmentatik lortutakoa, etab.

Sarrerak eta gastuak

Edozein enpresak bere balantze ekonomikoan egiten duen bezala, Udalaren kasuan ere, gastuak ezin dira sarrerak baino handiagoak izan. Hori gertatzen denean Udala zordun bihur-tzen da. Izan ere, Elgoibarko Udalari horixe gertatu zi-tzaion poltsikoan zeukan dirua baino gehiago gastatu zuenean. Inbertsio handiak egin ziren eta berarek ordaintzeko kredituak eskatu. Kredituak ezezik, horien interesak ere ordaindu behar izaten dira eta horrek handitzen du normalean Udale-txe baten zorra.

Nola gastatzen dira herritarren diruak?

Dirua zazpi sail ezberdinetan banatzen da. Sail bakoitzari kapitulu izena ematen zaio.

- **1. kapitulua:** langile guztien soldatak ordaintzeko.

- **2. kapitulua:** Udalak dituen gastu arrunt guztiei aurre egiteko.

- **3. kapitulua:** arestian aipatutako kredituen interesak ordaintzeko.

- **4. kapitulua:** dirua elkarre, ikastetxe eta herriko beste erakunde batzuei ematen zaizkien laguntzetarako izaten da.

- **5. kapitulua:** inbertsioen saila (herrian egingo diren obrak kontenplaten dira inbertsioetan).

- **6. kapitulua:** DEBEMENi emandako laguntza.

- **7. kapitulua:** erakunde finantzieroei eskatutako mailleguan amortizazioa.

Gastuak sailez sail

Aipatutako zazpi kapituluetako dirua batzorde bakoitzeko gastuetarako erabiltzen da. Batzordeak hauexek dira: euskara, hirigintza, barne saila, gizarte prestakuntza eta ongizatea eta kultura, gazteria eta kirola.

Aurrekontuei buruz informazio gehiago jaso nahi izanez gero, Udaletxeko Dirubilletako bulegora jo daiteke.

ISPILUA-BERRI DEGIRA



Xabi Garate

Postaria

- **Maitasun deklaraziorik egin al duzu sekula kartaz?** - Ez.

- **Eta jaso?**

- Deklarazioak ez baina maitasun eskutitzak bai.

- **Tokatu al zaizu sekula gutunazal bitxirik?**

- Bai, poesiak idatzita datozenak, koloretakoak...

- **Fakturak baino hobe, ez?**

- Bai, gusturago banatzen dira.

- **Nori bidaliko zenioke eskutitz bat?**

- Lagun handiren bati.

- **Zalea zara?** - Ez gehiegi. Jasotzen dudanean beti erantzuten dut baina inizatiba gutxi dut.

- **Seilu kolekziorik egiten al duzu?** - Ez, sekula ez.

- **Eta besterik?** - Errezetak eta aldizkarietan agertzen diren bidaiei buruzkoak batzuetan.

- **Faxik bidali al duzu inoiz?** - Ez.

- **Eta posta elektronikoa zer den badakizu?**

- Oraindik urruti geratzen zait.

- **Posta-poltsan bizitzako oinarrizko zein hiru elementu gordeko zenituzke?** - Osasuna,

jendearen arteko harreman ona eta alaitasuna.

- **Gaur egun zerk du urjentzia?** - Pakeak.

- **Zapatilak ala mokasinak?** - Zapatilak.

- **Hotza ala beroa?**

- Beroa. Egun hauetako eguraldia bizipoza da.

- **Goizean zer ikusten duzu ispiluan?**

- Egun berri bati hasiera emateko ilusioa.

- **Noren buzoira iritsi nahi zenuke gutun bat bazina?** - HIESaren aurkako txertoaren

asmatzailearen buzoira.

- **Gauetz parranda ala egunez lo?**

- Gauetz parranda.

- **Loteriarik onena?** - Osasuna.

- **Aktorea bazina, zein pelikula egin nahi zenuke?** - Forrest Gump.

- **Hilezkorra izan nahi zenuke?**

- Bai, bizitzea gustatzen zaidalako eta heriotza eta gero zer dagoen ez dakigenez...

● Martxoaren 30ean, ordu-aldaketa

Udaberriaren etorrerarekin ordularien orratzak aldatu egin ohi dira. Aldaketa datorren domekan, hilak 30, egin beharko da, ordulariak ordubete aurreratuz. Hortaz, goizaldeko 2ak direnean 3etan jarri beharko da ordularia. Aldaketaren arrazoia eguzki izpiak hobeto aprobetxatzea da, ordu gehiagoz egunargi aedukitzaerakoan energia gutxiago gastatzen baita.

● Liburutegia larunbatetan irekita

Liburutegia larunbat goizetan irekita dago. Aste-gunetako ordutegiak aparte, larunbat goizetan goizeko 10etatik ordu batera bitartean irekita egongo da Liburutegia. Zeregin hau praktikatuko pertsona baten esku egongo da.

● Zazpikiren programazioa

Zazpiki Irratiak martxorako prestatutako egutegiaren berri eman du. Programazioaren ordutegia honako hau da:

Asteartea

21:00 "Teilatuen zuloan"

22:00 "Sangrifais"

Asteazkena

17:00 "Lauteriak"

22:00 "Basakatua"

23:00 "Zinefilia"

Osteguna

19:00 "Blasferion"

22:00 "Hitz egin!"

Ostirala

20:00 "Musikaz Blai"

21:00 "Piemodiuna ta Patan"

22:00 "Goitibera"

23:00 "Gorrotoren ahotsa"

Larunbata

12:00 "Paternoster"

13:00 "Rock Blues txokoa"

15:00 "Filobiblion"

Igandea

18:00 "Galipot"

21:00 "Badator ekaitza".

34 milioiko irabaziak izan dira KILOMETROAK 96an

Joan den asteartean San Bartolome Ikastolako bazkideen Batzar Nagusian Kilometroak 96 jaiaren balantzearen berri eman zen. Irabaziak 34.359.907 pta.koak izan dira, "hasiera batean sarrera gehiago espero genituen eta gastu gutxiago, baina eguraldiatik jende gutxiago etorri zenez eta gauza asko hondatu egin zirenez, pozgarria da emaitza". Kilometroak 96 jaitik lortutako diruaren zatirik handiena San Bartolome Ikastolak egin dituen inbertsioei aurre egiteko erabiliko da. Jai erraldoi honetan "60.000 lagun bildu ziren, nahiz

eta gure asmoa 100.000 lagun erakartzea izan. Oraingoan ere erruduna eguraldia izan zen". Dena den, jendearen erantzuna oso ona izan zen iritzikoak dira, "bezperako eguraldia ikusita, ez baikenuen hainbeste espero".

Euskararen erabilera eta Elgoibar ezagutaraztea

Beste helburuetako bat euskararen erabilera suspertzea zen. "Urtean zehar antolatutako ekintzei esker hori lortu dela uste dugu". Elgoibar ezaguna izatea ere bazen urriaren 6an burutu zen Kilometroak jaiaren beste desio bat.

"650. urteurrena zela eta, Udaletik laguntza besterik ez dugu jaso eta horrela elkarrekin egin dugu lan. Elkartasunaren helburuak lortzea errazagoa izaten da, eta gustura gaude urtean zehar Elgoibarko herria Euskal Herriko erreferentzia kulturala izan delako".



Datorren astean zehaztuko da depuradora non jarri

Datorren astean Udalak Foru Aldundiarekin bilera egingo du Elgoibarren kokatuko den araztegi edo depuradoraren tokia eztabaidatzeko. Izan ere, Deba ibaia saneatzeko industrietako eta herriko zikinak bideratu eta depuratu behar dira. Oraindik ez da zehaztu zein tokitan jarriko den araztegia baina Gillermo Garate alkateak 7 aukera azaldu zituen prentsaurrekoan, "Albitxuri, Lerun Txiki-Morterika, Lerun Zaharra, Karkizano, Kantera, Arriagako depositoa eta Autopista azpian, Rodisa parean". Toki hauen inguruan jardun zuen alkateak, "nire ustez egokiena autopistaren ingurukoa da

nahiz eta arazoak izan daitzkeen lurak Europistak direlako". Kanterari dagokionean, "zarata eta usainak ekidingo lituzke herrian" eta Lerungo industrialdearen eta San Pedroko industria zaharraren arteko zonaldea ere aipatu zuen, "halere ibaiaren


mozketa egiten bada hor izango da, beraz...". Bestalde, Aldundiak ur zikinak herri azpitik bideratzeko asmoa du. Garatek azaldu zuenez, "kolektorea erreka ondoan jartzea proposatuko dut Madalatik Plaza Haundira joango litzatekeen paseo bat sortuz".





ETB1eko Euskaraokea Elgoibarren

ETBko Euskaraokea programa grabatzen izan ziren joan den asteazkenean. Plaza Handia gainezka zegoen haurrez eta bes-telako kuriosoz, programa nola egiten den ikusteko irrikaz. Ikastetxeetako 5. mailatik gorako 36 neska-mutil hantxe aritu ziren mikrofonoa eskuan. Emisioa apirilaren 14tik 19ra bitartean izango da egunero arratsaldeko 8etan ETB1ean.



Aste Santuko kontzertuak

Musika eta Dantza Fundazioak Aste Santuko kontzertuak antolatu ditu. Zapatuan Bergarako Aritzeta abesbatzak kontzertua eskaini zuen Parrokian, jende mordoska hurreratu zelarik. Asteazken iluntzean Iñaki Alberdi eta Miren Zubeldiaren kontzertu didaktikoa izan zen Herriko Antzokian eta gaur, hilak 21, Parroki abesbatzak Parrokian abestuko du.



Korrika eta euskal zinea

Korrikaren etorreraren inguruan, AEK-k Ongarri Zine Klubarekin elkarlanean, "Urte ilunak" pelikularen emankizuna antolatu zuen joan den ostiralean. Ekitaldian pelikularen zuzendariari, Arantza Lazcanoiri, lora sorta bat eman eta Korrikaren 1. dorsala jarri zitzaion.

Presoen Batzordearen lehen bilera

Hilaren 12an bildu zen lehen aldiz Presoen Batzordea. Gillermo Garate alkateak prentsurrekoan adierazitakoaren arabera lehenik eta behin batzordea zeintzuk osatuko duten zehaztu zen: Gillermo Garate lehendakaria izango da, EAJtik Isaak Loiola, EAtik Itziar Goñi, PSEtik Nieves Catarain, IUtik Juan Ignacio Ausin, HBtik Pello Mendizabal eta Senideen aldetik Joseba Iriondo. Bileran helburu orokorreari buruz mintzatu ziren, "Elgoibarko presoen egoera konkretuak aztertu eta Giza Eskubideen Komisiara bidali eta jarraipena egitea, ahal den neurrian laguntza ekonomikoak lortu eta bideratuz". Oraindik ez dute zehaztu zenbatean behin elkartuko den batzordea, halere, "lehendakariarengan zentratuko da ekintza. Izan ere, neu naiz liberatua dagoen bakarra eta edozein pertsona, erakunde edo Instituziotara joateko orduan erraztasun gehiago ditut alkate naizen aldetik".



● Atxutxiamaikea taldea fin ari da lanean

Badira kasik hiru urte Elgoibarko Izarra Elkarteak Atxutxiamaikea Begirale Taldea martxan jarri zuela. Hurrezkerok, Elgoibarko haurren aisialdia aberasten jardun dute talde osatzen duten hogeita hamar begiraleek. Momentu honetan lanez gainezka dabilzala esan digute. Besteak beste, Aste Santurako 4 eguneko egonaldia prestatu dute 11 urteko neska-mutilentzat. Legazpiko Brinkolan izango da egonaldia eta dagoeneko 25 lagunek eman du izena. Bestalde, martxoaren 22rako Udaberri Jaia antolatu dute. Urtaroak aprobeztatuz, jai bereziak antolatzea da taldekoen asmoa eta udaberriarekin hasiko dira. Amaitzeko, Larunbatero egitasmoaren 4. ekitaldia ere martxan jarri dute 15 lagunekin eta Udal Liburutegian txotxongilo emanaldia ere badutela adierazi digute.

● Ur, zabor eta estolderia zergak

1997ko hiruhilabeteari dagokion ur, zabor eta estolderiaren ordainagiriak, hilaren 26an ordain daitezke beranduenez. Goizeko 11etatik ordu batera bitartean Udaletxeko dirubilketen bulegora zuzendu. Ordainagiriak banke-txetik pasa daitezke.

KiliBARRREN

Martxoaren 21a
38. zkia

M E N D A R O K O G E H I G A R R I A



P

epita Esnaolak laga digu hilabete honetako argazkia. Pepitak esan digunez, duela 46 urte inguru ateratakoa da, Aste Santuko prozesioko irudi bat

agertzen delarik bertan. Zein garaitan gauden eta datoren astean Aste Santua izango dela kontuan izanik, benetan aproposa iruditu zaigu honako erretratu hau. Dirudienez, aintzina Garagartzako parrokiatik ateratzen ziren prozesioan eta herrian zehar buelta eman eta gero

atzera elizara bueltatzen ziren. Hona hemen argazkian agertzen direnak:

Ezkerreko ilaran, atzetik hasita: **Francisco Mugerza, Jose Andrés Iriondo (†), Luis Ondarra (goian), Braulio Inda (†), Vicente Mugerza, Anizeto Olazabal eta Maria Azpiazu.**

Kristoren kutxa eramaten: **Felipe Loiola (ezkerrean), Manuel Mendikute (eskuman)** eta azken honen atzean **Juan Agustin Esnaola eta Joaquin Longarte.**

Eskuin aldeko aurreko gizona: **Pedro Mari Clerigué (†).**

Hamargarrenean Mendaro

Gozategiren kantak dioen bezala, hasi da jadanik Euskal Herria Korrika. Herriz herri, hiriz hiri eta Euskal Herri osoan zehar euskararen aldeko lekukoak hainbat bira eta buelta eman-go ditu. Martxoaren 14an Aita Villasantek eman zion hasiera Arantzazun. Orduetik bidez bide ari da, aurten Mendarotik ere pasa delarik gaur bertan, ostirala. Honi buruz zerbait gehiago jakin asmoz antolatzaileekin hitzegin dugu.

Badira urte batzuk Korrika lehen aldiz egin zenetik, 1980an hain justu. Urte hartako azaroan Oñaitik Bilbora hainbat euskaltzalek Euskal Herria zeharkatu zuten euskararen aldeko ekintza honetan. Hasiera batean Korrika urtero egin nahi bazen ere, azkenean biurtekoa bihurtu zitzaizun. Aurtengo, beraz, 10. edizioa izango da.

Mendaron duela 4 urte pasa zen azkeneko. Urte hartan Jose Idoetak eraman zuen lekukoa eta berak esan digunez, “oso esperientzia polita izan zen. Euskararekiko zaletasuna betidanik izan dut eta poz handia eman zidan lekukoa eramateak. Esperientzia ahaztezina izan zen. Mendarotik gauez pasa zen. Altzolako errebueltan geunden lekukoaren zain eta altzolarrek konturatu gabe aurrera jarraitu zuten”.


Korrika Txikia

Orain bi urte ez genuen Korrika egiterik izan Mendaron. Halere, Korrika Txikia antolatu zen. Arantza Egañak, antolatzaileetarikoa batek esan digunez, “nahiz eta Mendarotik pasa ez, Ikastolako arduradunekin hitzegin eta umeekin zirkuito txiki bat antolatzeara proposatu nien batetik, materialea saltzeko eta bestetik, Korrikako giroa herrian isladatu eta jendeari jakinarazteko”. Egun horretan umeentzako jolasak antolatu ziren eta sari bezala Korrikako materiala banatu



zen, “Euskara Batzordeko laguntzarekin banatu genituen sariak. Zirkuitoa herri barruan izan zen eta mojen artetik nagusiena atera zen. Gero, txikienek hartu zuten lekukoa eta azkeneko metroak garai hartan jubilatuen elkarteko lehendakaria zenak egin zituen lekuko-

Zer suposatzen du zuretzat lek



MARI CARMEN SEIJAS
16 urte

“Truditzen zait euskararen aldeko ekintza polit bat dela eta ilusioa ein dia testigua eramatiak. Gainera, Debako talde batian nabil korrika eitxen eta antolatzaileek esan zienian ia testigua eramatia nahi naban segiduan esan naban baietz. Autopista azpitxik Txatarreriraino eramant dot lekukua eta Arrituriri pasau diot”.



ENETZ ECENARRO
19 urte

“Poza eman dit testigua eramatiak. Telebistan ikusten nabarian nola eramaten zebe testigua gogua sartzen jatan. Euskararen alde danez askoz hobeto baina hala ere lan hori urte urte osuan zihar ein bihar da eta ez egun batian bakarrik. Ekintza hau sinbolikoa da. Gogo gehixen karreteran zihar libre-libre saltaka eitxeko nakan, kotxerik gabe. Korrikako bileran boluntario azaldu nitzan eta neri Santuarandik autopista azpiraino tokatu jatan”.

ere KORRIKA

arekin, Valentin Jauregik". Arantzak oso positibotzat baloratu zuen aipatu eguna.

Aurten, 10. edizioa


Aurten Dorleta Lazarobaster eta Ainhoa Urbieta ibili dira antolatzaile lanetan. Esan digutenez, Mendaron AEKrik ez dagoenez, Debakoekin izan dira harremanetan, "informazio orokorra, materiala, kilometroak eta abar eman dizkigute. Gero, Korrikari buruzko bilera bat egin genuen Kultur Etxean". Antolatzaileek esan digutenez bilerak oso harrera ona izan zuen, "jende dextente agertu zen kolaboratzeko prest. Bileran erabaki zen lekukoa nork eraman eta nondik nora". Dorleta eta Ainhoa jakinarazi digutenez Korrika herri barrutik ere pasako da, "zubitik Azpilgoetan zehar umeez eramango dute lekukoa eta Azpilgoetako iturrian jubilatuei pasako diete. Jubilatuek Santa Anaraino eramango dute".

Diru kontuak

Antolatzaileek kontatu digutenez ez da Kilometrarik erosi eta emandako dirua borondatezkoa izan da, "kilometroak ordaindu egiten dira baina gauza

sinbolikoa da. Kuestioa Korrikari laguntzea da eta guk dirua inongo konpromezurik gabe eskatu dugu. Egin diren aportazioekin oso gustura gaude eta eskerak eman nahi dizkiegu lagundu duten guztiei".

Korrikari amaiera emateko igandean, hilak 23, kuestazioa egingo da. Era berean antolatzaileek mendarotar guztiak animatu nahi dituzte Bilbon Korrikari bukaera emateko egingo den jaialdira joan daitezen.



Lekukoa eramateak?



**IKER
KANALAETXEBERRIA
21 urte**

"Euskararen aldeko ekintza guztietan kolaboratu bihar da, are gehiago Korrikan. Lehenengo aldia da Korrikan parte hartu dudana eta esan zidatenean ea korrika egin nahi nuen ez nuen pegarik jarri. Testigua LanBi-tik zubiraino eramantut".



**ARRITXU URBIETA
16 urte**

"Lehenengo aldia da eta gainera euskararen aldeko ekintza bat danez ilusiu eman dit eramatiak. Momentu hunkigarria izan da, euskarak hori eta gehiago merezi du. Mendaroko azken kilometruan eramantet testigua, txatarrerixatik Sasiolaraino. Han Debako "Goaz" antzerki taldeko bati pasadiot testigua".

❖ “Lagun Betikoak” elkartearen zuzendaritza- batzorde berria

Martxoaren 13an Lagun Betikoak Jubilatuen Elkartearen urteko Batzar Nagusia ospatu zen. Beste gauza batzuen artean datozen bi urteetarako zuzendaritza berria aukeratu zen: lehendakaria Regina Garcia izango da. Lehendakariordea, Luis Etxeberria; idazkaria, Mila Goikoetxea; diruzaina, Arantza Arrieta eta bokalaka, Maria Unzueta, Rosario Longarte, Aniceto Olazabal, Manuel Etxeberria, Gregorio Rubio, Leonor Portilla eta Valentin Jauregi.

❖ 1997ko aurrekontua 119 milioiokoa da

Urtarrilaren 30ean egindako bilkuran 1997. urteko Udal Aurrekontua onartu zen. Hona hemen laburbilduta:

- Pertsonal gastuak 28.053.000 pta.
- Gobernu organoak 4.971.000 pta.
- Gizarte Zerbitzuak,
Jubilatuaren Elkarte eta
Osasuna 7.345.000 pta.
- Hezkuntza eta Kultura 9.279.000 pta.
- Herriko jaiak 5.500.000 pta.
- Euskara 1.500.000 pta.
- Nekazal azpiegitura
(DEBEMEN, Izarraitz Bizirik,
baserrietako obrak) 5.400.000 pta.
- Ekain II proiektua 3.000.000 pta.
- Zerbitzu publikoak
(kaleak, hilerria...) 38.173.000 pta.
- Etekin gabeko elkarteztat
dirulaguntzak 3.000.000 pta.
- Ekonomi-Industrial garapena
(Debegesa) 1.000.000 pta.
- Zor publikoa 12.070.000 pta.
- **GUZTIRA 119.000.000 pta.**

Honez gain beste 3.500.000 pta. herriko enparantzako urteaniztasun obrarentzat izango dira. Partida hau urtean zehar kreditu aldaketaren bitartez gehitu ahal izango da obrarekin hasi eta 1998. urtean amaitzeko.

Iazko aurrekontuarekin konparatuz %11,5a gutxitu dela ikus daiteke, zerga eta ondare-ondasun gutxiago bilduko delako.

Arnoateko iturria

Arnoateko iturria izen bereko baserriaren ondoan dago kokatua. Arnoateko baserriak ezaugarri bereziak ditu, izan ere, Elgoibar, Mendara eta Markina-Etxeberria udalak mugatzen baititu. Arno mendira doazen mendizaleentzat pasalekua da honako iturria. Iturriaren egoera txarra


kontuan izanik beharrezko konponketak egitea erabaki zen guztira 1.500.000 pta.ko inbertsioa egin delarik. Aurrekontuaren %40a Udalak jarri du eta gainontzeko %60a DEBEMENek. Arnoateko iturriaz gain 1995. urtean Kilimon bailarako karo biak ere berreskuratu ziren.



Barixaku Santuko gurutze-bidea Mendaron

Aste Santua gainean dugu. Aste horretako jai nagusia Pazkoa da baina horrekin batera badaude beste egun berezi batzuk: Eguen santua eta Barixaku Santua. Egunenean kristauen eginbehar haundienaren ospakizuna izaten da: maitasunarena. Barixaku Santuan, berriz, Jesusen heriotza izaten da gogoan. Mendaron Barixaku Santuan Azpilgoetako elizan egiten da elizkizun nagusia arratsaldean. Halere, goizeko 10etan Garagartzako elizaren aurretik Santakruzera arteko ibilaldia egiten da. Ibilaldi horretan Jesusen azken momentuak gogoratzen dira. Ibilaldiak kilometro t'erdi irauten du eta ehun metrotik ehun metrora gurutze bana jartzen da, 14 guztira. Gurutze bakoitzaren aurrean otoitz, kantu eta gogoeta egiten dira Jesusen azken momentuak gogoan izanik. Duela 10 urte hasi zen ekintza hau egiten. Bidean jartzen diren gurutzeak egurrez-

koak dira, zenbaki erromatar batzuek tailatuak dituelarik eta Mikel Fernandez mendarotarrak eginak dira. Aurten Gurutz-bidearen hasieran eramango den gurutzea berria izango da, honako hau ere Mikelek egina. Ospakizun honetan 100 lagun inguru elkartzen dira.



HBko J. C. Marcosek prentsaurrekoan adierazitakoaren arabera, "Patronatuko zuzendaritari, Patronatuko lehendakaria den alkateari eta gainontzeko zinegotzi guztiei aerobik zerbitzuaren lehiaketan irregularitasunak egon izanaren ardura egozten diegu". HBren arabera, hiru proposamen egon ziren zerbitzu hori betetzeko. Lehen eskaria, orain arte aerobika eman duen Ermuko batena, bigarrena Elgoibarko aerobik monitore batena eta hirugarrena Eibarko OKE C.B.rena. "Ramon Mujikak esan bezala, Ermukoari eman zitzaion adjudikazioa, merkeena zelako". Abenduaren 23an, egun berean, aurkeztu zituzten lehen eta bigarren lehiakideak euren proposamenak. Bigarren hautagaiak guregana jo zuen, irregularitasunak egon ote ziren susmoaz. Marcos-ek esan bezala, "Ramon Mujikaren trabak gainditu ondoren frogei buruzko dokumentazioa eskuratu nuen eta Ermukoak aurkeztutako sobreetan bi proposamen ezberdin topatu nituen, bata 2.250 pta.koa eta bigarrena 1.700 pta.koa. Hasteko, ezin da proposamen bat baino gehiago aurkeztu eta kurioa da Ermukoaren 1.700eko eskaria bigarren lehiakideak aurkeztutakoa baino 40 pta. merkeagoa izatea". Lehiakide honek ez eta bigarrenak ere ez zuten euskara froga gainditu. Hortaz, Eibarko enpresak hautagai bat aurkezteko zain daude. HBk, hala ere, lehiaketa baliogabetu eta berriro egitea proposatu zuen. "Inork ez daki nork ireki zituen plikak, ezta zergatik ez zitzairen denei batera egin euskara froga. Ramon Mujikak ez dit azalpen argi bat eman eta gezurretan ibili da gainera. Hasieratik zeukan Ermukoa kontratzeko interesa. Berarenganako konfidantza osoa galdu dugu eta espediente administratibo bat irekitzeko eskatu dugu bai eta kargutik kentzeko ere". Udaletxean horrelako irregularitasunak sarri gertatzen direla salatu zuen Marcos-ek.

PP eta IU-EBk alkatearen salaketei erantzun die

Joan den astean Guillermo Garatek emandako prentsaurrekoan, oposizio alderdiek "maila ez dutela ematen" azaldu zuen, "ez alderdi ez eta pertsona bezala ere". PPko zinegotzia "parakaidista" izendatu zuen eta IU-ri buruz, "HBren bidea jarraitu eta

demagogia egiten duela" esan zuen. Aste honetan bi alderdi horien erantzunak iritsi zaizkigu. Juan Carlos Avian PPko zinegotziak eta Jose Ignacio Ausin IUko ordezkariak alkateak eginiko salaketen aurrean izan dute zeresanik.

PPren erantzuna

Juan Carlos Avianek, PPko zinegotziak, joan den astean Guillermo Garate alkateak oposizioaren aurka egindako salaketei erantzun nahi izan dio. Avianen hitzetan, "beti herritarren eskaerak entzun eta bultzatu izan ditut. Horietako batzuk alkatearentzat zentzugabeak izan daitezke baina herritarrentzat garrantzitsuak dira". PPkoaren ustez, "oposizio konstruktibo bat egin dut, alternatibak azalduz". Bestalde, "nire karrera politikoa alderdiak erabakiko du. Komisioetara Bilbotik etortzeak arratsalde oso bat suposatzen dit eta lan egiten nuen enpresan arrazoi horregatik ez zidaten kontratua luzatu". Parakaidista kontuari buruz, "komisio gehienetara joan izan naiz eta gaien nondik-norakoa ezagutzen dut. Gainera, nork esan dezake horrelakorik alkatea bera Azkoitian bizi denean. Hala ere, badirudi zenbait traba egiten diela kanpotar batek herritarren interesak defendatzeak. Non ikusi da alkatea oposizioa erasotzen eta ez alderantziz!".

Harrezkero beste prentsaurrekoan Guillermo Garate alkateak azaldu zuenez, "Avian gezurretan ari da. Zinegotzi guztiek Korporazioan sartzerakoan dituen hondasun eta ekintzak deklaratu behar dituzte". Garatek orijinala eta fotokopiak banatu zituen eta bertan, "lanik ez duela, diru iturririk ez duela eta inkompatibleak izan daitezkeen bestelako ekintzak ez dituela aitortzen zuen Avianek". Alkateak Aviani "gezurra prentsari edo Udalarari esan dion argitzeko" eskatu zion, "garbi ikusi baita gezurti bat dela".

IU-EBren erantzuna

Juan Ignacio Ausinek bi puntu bereiz-


tu ditu alkateak jaurtikitako salaketen aurrean. Alde batetik, "alkatea ez da pertsonarik egokiena oposizioak maila ematen ez dugula esateko. Izan ere, 7.280.000 pta.ko kostua duen kargu politikoa bat izendatu behar izan du laguntzeko. Aurreko alkateak ez zuen beharrik izan eta garai hartan gaur egun baino arazo larriagoak zeuden". Bigarrenik, Ausinek adierazitakoaren arabera, "izan daiteke IU eta HBk bat egitea zenbait gaitan baina horrek ez du esan nahi haien bidetik goazenik, are gutxiago demagogia egiten dugunik. Bestela, PNVri buruz gauza bera esan dezaket. Izan ere, HBko Mahai Nazionalako kideen atxilotetaren aurka bozkatu zuten nahiz eta neurri horrekin ados ez egon. PSEren bidetik al doa PNV?".



*Guillermo Garate,
Elgoibarko alkatea*



*Jose Ignacio Ausin,
IUko zinegotzia*



*Juan Carlos Avian,
PPko zinegotzia*

Aitaren eraginez batez ere, oso gaztea zela musika ikasten hasi zen. Solfeoa lehenik eta pianoa gero, 17 urte bakarrik zituen ikasle izatetik irakasle izatera pasa zenean. Txaro Etxeberriak 45 urte ditu eta urte mordo bat darama musika irakaskuntzan Bere aldetik hasieran eta Musikeskolan gaur egun, berak esan digunez gauza asko aldatu dira urteotan.

TXARO ETXEBERRI

”Gaur egun haurrentzat musika hobby bat da”

– Behatz luzeak al dituzu?

- Ez, esku handia dut baina behatz luze eta fin horiek ez. Dena dela, eskua landu egiten da, gehiago da aritzea berez esku mota bat edo bestea izatea baino.

– Ikasle modura hasi eta irakasle amaitu.

- Bai. Garai hartan gainera Elgoibarren oso gutxi irakasten zuten musika eta beharra zegoen. Horregatik hasi nintzen. Gainera, beti egon naiz kontaktuan nire irakasle izan direnekin eta eurei esker antolatzen nituen nire klaseak.

– Belarri onik ez duenak ikasi al dezake?

- Garatu daiteke bai. Halere, beti izango du askoz erraztasun gehiago berez ritmika eta belarri ona duenak.

– 5 urteko hurrekin hasi

zarete lanean.

- Bai, hala da. Klase oso motzak dira eta lan guztia sentsoriala da, musika entzun, sentitu...

– Ez al dute gauza gehiegi gaur egun haurrek?

- Izan daiteke. Halere, musika irakaskuntzaren enfokea erabat desberdina zen. Lehen, irakaskuntza arautua zen eta urte guztian eginiko lana azterketa bakar batean jokatzeko zuten Donostian eta hiru minututan. Asko exigitzen zen eta, logikoki, guk ere listoia oso altu jartzen genuen. Oso gogorra izan behar zen aurrera atera ahal izateko.

– Asko aldatu al da?

- Izugarri. LOGSE sartu denetik kontserbatorioa izatetik musikaeskola izatera pasa gara. Kontserbatorioaren helburua titulazioa lor-

tzea da eta musikeskolaren filosofia ahalik eta jende gehienara iritsi eta musika-rekin disfrutatzea.

– Kalitatea jaitsi egin al da?

- Beharbada lehen maila tekniko gehiago zuten lehen, orain klase orduak ere gutxiago direlako, gutxiago exigitzen zaielako... Gainera, orain askok bi urte ematen dute instrumentu batekin eta gero aldatu egiten dute, gero beste bat... Ez dira bakar batean espezializatzen eta azkenean bat ere ez dute behar bezala ikasten. Gaur egungo haurrentzat musika hobby bat da. Baina seguruena askoz gehiago disfrutatzen dute. Askoz erlaxatuagoa da.

– Pianoa al da umeez gehien eskatzen duten instrumentua?

- Ez, kitarra. Eta horrez gain, musika audioak antolatzen ditugu ikasleentzat instrumentu guztiak ezagutuz ditzaten eta izugarria da denei nola deitzen dien atentzioa perkusioak, bateriak eta abar. Halere, gero ez dute ikasle askok aukeratzen, askotan gurasoek eraginda edo.

– Pianoa ez balitz, beste zein instrumentu ikasi nahi zenuke?

- Bibolinaren soinua asko gustatzen zait. Halere, pianoa instrumentu konpletua iruditzen zait.

– Zer da musika zuretzat?

- Une asko betetzen dizkit musikak, pelikuletako musikan asko fijatzen naiz... Oso zaila egingo litzaidake musikarik gabeko egun bat imajinatzea. Niretzat oso garrantzitsua da musika, batez ere entzutea.

BESTEAK ESANA

“Pertsonalitate handikoa eta eskuzabala. Irakaskuntzan izan diren aldaketen bide berriak bereganatu eta igortzen saiatzen da” BELEN SAGARZAZU



BARRENeKo atal berri baten aurrean gaudu. Felix Etxeberria "Parapan"ek proposatu eta idatzitakoa da. Elgoibartar bati buruzko informazioa emango digu Felixek eta guk zeini buruz ari den asmatu behar dugu. Badakigula pentsatzen baduzu, idatzi erantzuna eta zure datuak paper batean eta ekarri BARRENeRa. Amaieran sari bat zozketatuko dugu asma-tzaileen artean.

NOR OTE DA?

Beste herri askotan bezala, gure artean ere oso errotuta dago kirola. Normala da kirolzaleak kirol mota bat baino gehiago egitea. Horietako bat da gaurko gure pertsonaia izkutua.

Gaztetan txirringularia izan zen, afizionatu mailan punta-puntakoa izatera iritsi zelarik. Pilotan hasi zen beranduago eta afizionatuetan aurrengoetakoa izatera ere iritsi zen. Profesionaletara ere pasatu zen, azkenean, eta haundienekin eta onenekin aritu zen pilotan.

Azken gerra garaian, oso "irradi" gutxi zeuden Elgoibarren eta bat Goikoe-rotan zegoen. Gure pertsonaia, bertara hurreratzen zen "irratia" entzutera, baina, norbaitek salatu egin zuen eta horren kariaz espetxea ere ezagutu zuen.

Argibide hauek guztiak gutxi badira ere, hara hemen azkena: kirolariak gain, industri gizona ere bada.

Nor da Elgoibarren, jaio, hazi eta bizi den pertsonaia hau?

(Erantzuna apirilaren 4an emango dugu.)

Angela Aizpitarte Etxeberria

(1902-1987)



- 1902ko uztailaren 7an jaio zen Azpeitian. Zazpi anai-arreben artean laugarrena zen.

- Gaztetan oinarrizko ikasketak egin zituen. Berehala Elgoibarko "Cafe Izeta"ra gaur egungo "Gabi"ra, etorri zen lanera. Denboraldi batera José Belokirekin ezkondu eta 5 seme-alaba izan zituzten.

- Ohiko bizimodua zeraman familia izanik, zoritxarra 41 urterekin ezagutu zuen alargun geratu bait zen. Egora honen aurrean, Sigmara lanera joateko erabaki gogorra hartu zuen. Bertan urte mordoak egin zituen, jubilatuta arte.

- Emakume ezaguna eta estimatua zen herrian. Hitz egiterakoan gozotasun bereziz egiten zuen. Hizketa-ria zen, denekin gustatzen zitzaion hizketaldi bat egitea. Hileta askotara joandako emakumea.

- Familia ondo hazi eta aurrera ateratu zuen. Errosario kalean bizi izan ziren beti.

- Zaletasun handia zion pasiarra motzak egiteari. Irakurketari ere afizio handia zion.

- 1987ko uztailaren 7an hil zen, jaio zen egun berean, 85 urterekin.

Juanito Gorostiza

ITURRI

Taberna

Foruen Plaza, 5 - ELGOIBAR





INTURAK

PEDRO PEREZ BERISTAIN

San Roke, 30 behe. ☎ 74 36 52 - 74 27

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA



OIERKI

IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

☎ (943) 20 35 15 ● ☎ ABERIAK (943) 20 35 15

Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

BOUTIQUE DEL PAN

Enpanadak
Baserriko ogia

Enbutidoak
Bolleria

San Bartolome, 6 / B. Ecenarro, 1 ☎ 74 33 92



azkue



ste honetako erretratua, Jose Manuel Zubiaurrek bidalitakoa, 1967ko apirilaren 23an Beasaingo Loinaz futbol zelaian jokatutako partidukoa da. Elgoibartarrek 2 eta 0 irabazi zioten Legazpiko Ilintxa taldeari, goleatzaileak Zubiaurre eta Riaño izan zirelarik. Presidentea, berriz, Jose Luis Eizagirre zen.

Argazkian goian eta ezkerretik eskuinera: J. M. Osoro, A. González, J. Loiola, C. Unzilla (entrenatzailea), M. C.

García (poxpolinez jantzitako neska), J. L. Apellaniz, L. M. Riaño, M. A. Galarraga eta E. Berriozabal (kapitaina). Behean: J. M. Saiz, J. A. Bartra, B. López de Abetxuko, J. Mujika eta J. M. Zubiaurre.

Argazkian agertzen ez badira ere, deialdian izan ziren: M. Unzilla (delegatua, masajista, psikologoa etab.), Txomin Loiola, J. Etxaide eta Juanito Frances materialen arduraduna.

Argazkiko jokalariek 18-20 urte zituzten batz bestea. Apellaniz, Berriozabal, Saiz eta Bartra eibartarrak ziren. López de Abetxuko Miranda de Ebrokoa eta beste guztiak herriarrak.

**KAROBI
PUB**



Tel. 74 06 37
San Frantzisko, 37



ION

- LARRUA
- ANTEA
- NAPA

Orain Gizon eta emakumeentzako moda

San Bartolome, 37
ELGOIBAR



San Frantzisko, 27
Tel. 74 26 21


Ibai Kirol Elkarteak 15 urte bete ditu

Ibai Kirol Elkarteak 1982. urtean sortu zen, duela 15 urte hain justu. Hasierako urteetan mantenuko gimnasia oinarritzen zen eta adin zein sexu guztietako pertsonen hartzen zuten parte. Halere, urteek aurrera egin ahala, elgoibartarrek bai eta inguruko herrietakoek ere bestelako eskakizunak egin zituzten. Poliki-poliki Ibaik zerbitzu berriak jarri zituen martxan inguruetan lehena izanik, besteak beste, judoa, karatea, aerobic-a, haurren psikomotrizitatea, gimnasia erritmikoa, taekwondo, Wing-Tsun, Aikido, gimnasia berezia haurdun dauden emekumeentzat ...

Ibai Kirol Elkartean era batera edo bestera jende askok hartu izan du parte. Izan ere, ikastaro ezberdinak izan dira beti aukeran eta bakoitza gustukoenean aritu izan da.

Ibai Kirol Elkartearen arrakastak arrazoi ezberdinak izan ditu. Alde batetik kontuan izan behar da kirol arloan aurreratuenen artean egon dela, momentuan momentuko ikastaroak antolatuz. Bestetik, kirol mota guztiak esperientziadun profesionalen esku egon izan dira.

15 urteotan Ibai Kirol Elkartean kirolari handiak formatu izan dira horietako askok txapelketa eta domina ugari eskuratu izan dituztelarik.



LEHENALDIA ETA ETORKIZUNA



Angel Mari Albizu

- **Judoa:** Maila nazionalen kategorian desberdinetan hiru-garren postuak eta Lisboako nazioarteko txapelketan txapeliduna.

“Oinetan arazo bat nakalako hasi nitzan juduan. Ibaiko lelengo ikaslietarikua izan nitzan eta 7-8 urte inguru ibili nitzan. Kuadrilakuak hasi ginan eta lagun arteko girua zauan. Oso oroitzapen onak ditxut. Juduan meta batzuk nitxun eta ahal nabana ein naban lortzeko, gogorra zan baina merezi zaban”.



Esther Idiaquez

- **Judoa:** 48 kilo azpitik Infantilen mailan Euskadiko eta Gipuzkoako txapeliduna
- **Gimnasia Erritmikoa:** Gipuzkoako txapelketara pasatzeko taldeka lehenak eta banaka 11.a.

“Gauza asko ikasi ditxut, indarra bideratu eta erabiltzen eta inportantiena ez dala irabaztia, bakoitzak ahal daban guztia ematia baizik eta galtzen ere ikasi ein bihar dala. Asko animatzen gaituzte”.

Lorpenak

- **Espainiako Txapelketak**
 - Brontzezko 3 domina
 - 5. postua
- **Nazioarteko txapelketak**
 - Urrezko 32 domina
 - Zilarrezko 10 domina
 - Brontzezko 25 domina
- **Espainiako Txapelketako lehiaketak**
 - Urrezko domina 1
 - Zilarrezko domina 1
- **Euskadiko Txapelketak**
 - Urrezko 4 domina
 - Zilarrezko 2 domina
 - Brontzezko 3 domina
- **Gipuzkoako Txapelketak**
 - Urrezko 12 domina
 - Zilarrezko 9 domina
 - Brontzezko 16 domina
- **Bizkaiko Txapelketak**
 - Urrezko 4 domina
 - Zilarrezko 2 domina
- **Gipuzkoako Federazioko Lehendakari Trofeoak**
 - Brontzezko 3 domina
- **Deba Behe eta Garaiko Torneoak**
 - Urrezko 94 domina
 - Zilarrezko 72 domina
 - Brontzezko 75 domina
- **Klub arteko torneoak**
 - Urrezko 38 domina
 - Zilarrezko 39 domina
 - Brontzezko 45 domina
- **Guztira** 25 urte hautean Ibai Klubak **urrezko 178** domina lortu ditu, **zilarrezko 115** eta **brontzezko 174**, 470 orotara.

Gipuzkoako Judo Txapelketaren bigarren saioa

- Gipuzkoako Txapelketako finalerako puntuazio oso ona lortu zten Ibaikoek Deban:
- Urrezko 5 domina eta brontzezko 4.
- Elgoibarko judoka guztiak sailkatuko dira Donostian egingo den finalerako.

Kirolaren onurak

Gauza jakina da kirolak gorputzerako dakarren onura: sistema nerbio-soan, zirkulatorioan, arnasketan, metabolismoan eta lokomozio-aparatuan... Horrez gain, pertsonalitatea lantzen laguntzen du:

■ Pertsonaren garapen fisikoa lortzen du modu armoniko eta zuzenean.

■ Erresistentzia fisikoa handitu eta nekea zein gaixotasunak gutxitzen ditu.


■ Pertsonaren baldintza psikikoak hobetzen ditu.

■ Drogomenpekotasunen hezkuntza eta gazte delinkuenteen bergizarteratzean laguntzen du.

Harreman pertsonalak

Gimnasio eta kirol elkarteetan egunero jendearen artean harreman estuak ematen dira. Kirola praktikatzen duten pertsonen artean lagun talde berriak edota bikoteak sortzen dira.


Gainera, eguneroko arazoetatik ihes egin eta nork bere buruari denbora bat eskaintzeko aukera ezin hobe da kirola egitea.



Zenbait bitxikeria

Ama eta seme-alabak

Garate-Rodrigo familia



Blanca, Gorka, Oihane eta Leire ama eta seme-alabak dira. Familia berekoak laurak. Eta guztiak Ibai Kirol Elkartearen dabilta, judoan mutila, gimnasia erritmikoan bi neskak eta aerobic-ean Blanca, ama. Laurak bat datoz oso gustura daudela eta benetan giro jatorra eta profesional onak aurkitu dituztela esatean. Gorkak, gainera, esan digunez, gaur egun ezingo luke bere bizitza judorik gabe imajinatu.

13 urte Ibain

Maite zabala

“Duela 13 urte hasi nintzen Ibai-n. Hasieran mantenuko gimnasiarekin eta gero aerobic-arekin. Aerobic-a asko gustatzen zait, musika, koreografia... Muskulazioa ere egiten dut, osagarriak dira. Gorputzean igartzen den arren, nerretzat batez ere Ibaira etorri eta egun osoko tentsio eta arazo guztiak liberatzea izaten da onena. Gimnasioan nagoen ordua sakratua da. Oso gustura egon naiz beti, bai maila pertsonalean eta bai profesionalean”.



iBAI
KLUBA



Santa Ana, 46 • Tel: 74 07 93

Osasuna esku hoberenetan

Zatoz! Kalitatea eta harreta pertsonalizatua eskainiko dizugu

- Judo
- Aerobic
- Muskulazioa
- Taekwondo
- Mantenu gimnasia
- Edozein kirolerako prestakuntza egokia
- Wing-tsun
- Gimnasia erritmikoa

EMAITZAK

Futbola

Elgoibar 4 - Oiartzun 0 (Oho. kad.)
 Haundi 1 - Tolosa 0
 Elgoibar 1 - Lasarte 1 (1. erreg.)
 Zumaiako 0 - Elgoibar 1 (Oho. jub.)
 Elgoibar 2 - Hondarribia 2 (2. jub.)
 Elgoibar 6 - Urretxu 1 (Neskak)
 Tolosa 6 - Elgoibar 1 (Inf.)
 Soralueze 3 - Pedrusko 1 (2. erreg.)

Saskibaloia

Txanakakua 48 - Ind. Lagun Artea 46

Eskubaloia

Pulpo 18 - Pagoaga Elg. 18 (Jub. neska.)
 Pneumax Elg. 42 - Leizaran 11 (Kad. mut.)
 Unceta Elg. 13 - Pulpo 11 (Kad. neska.)

Futbitoa

Kosakos 1 - PSK 5
 Berrogei Duro 2 - Karkis 4
 Zazpi 1 - Orbela 3
 Maser 2 - Sanroketarrak 4

Atletismoa (Zestoako XIX. Krosa)

Alebin mutilak:

Javier Ausin (5. postua)
 Iker Arrillaga (20. postua)
 Eduardo Córdoba (33. postua)

Infantil mutilak:

Manuel Pérez (14. postua)

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 22

9:00 S.D. Eibar - Euskalduna (1. kad.)
 10:45 S.D. Eibar - A Dorga (Oho. Kad.)
 12:30 Elgoibar - Urki (2. jub.)
 14:15 Beti Sutan - Eibartarrak (2. erreg.)
 16:00 Elgoibar - Beti Ona (Oho. jub.)
 17:45 Eibartarrak - A.D. San Juan (Neskak)

Igandea, 23

10:00 Eibartarrak - Ordizia (Jub.)
 12:00 Elgoibar - Eibar (Inf.)
 13:30 Gazteak - Soralueze (Erreg.)
 16:00 S.D. Eibar - Segura (Erreg.)

Ostirala, 28

Jubenilen Nazioarteko Txapelketa
 17:00 Real Madrid - Osasuna
 Astelehena, 31
 17:00 Haundi - Amurrio

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 22

17:00 Pagoaga Elg. - Leizaran (Jub. nes.)

Futbitoa, Urasandin (finalaurdenak)

Igandea, 23

9:00 Los Herminios - Sorpresa
 10:00 S. Pitxote - S. Braga
 11:00 Kunta Kinte - Menisko
 12:00 Udaberri - Ikus Optika

Areto futbola, Kiroldegian

Ostirala, 21

22:10 Elgoibar - Axular Liz. (1. maila)
 23:10 Elgoibar - Hosfrinor (Autonomikoa)

OHOREZKO LIGAKO JUBENILEN TALDEA

Futbolarien belaunaldi berria

Futbol denboraldian buru-belarri sartuta gaudela, Ohorezko Ligako jubenilen martxa ezin hobearen berri emango dugu oraingoan. Denboraldi hasieratik partidu bakarra galdu dute, Ordiziaren aurka, etxean. Gainontzean 16 partidu irabazi dituzte eta zortzi berdindu. Balauntzea ezin hobea da: lehen sailkatuarengandik 3 puntura daude, taularen 3. postuan.

Pedro Santiago futbolaria izandakoa da Ohorezko Ligako jubenil taldearen entrenatzailea. "Duela hiru urte hasi nintzen Elgoibarko Ohorezko Ligako jubenilak entrenatzen. Eibarko lagun batek animatuta hasi nintzen talde eibartar batekin eta azkenean C.D.n bukatu dut". Gaur egun jubenilen talde nagusiaren ardura dauka. "Euskal Ligara igotzeko aukerak baditugu. Lehen postuan geratzen den taldea bakarrik igotzen da; horretarako bigarren sailkatuaren aurka-

ko partidua irabazi behar-ko genuke eta bigarren taldeak lehen sailkatuaren aurkako partidua galdu. Hala ere, gure helburua momentu honetan ez da hori. Haundirentzat jokalariek formatzea baizik".

Haundiren harrobia

Etorkizun handiko taldea da entrenatzailearen ustez. Astean hiru egunean entrenatzen dute, ordu t'erdez. "Alde izugarria dago lokaztutako zelai batean edo Mintxetan entrenatzea. Ariketa fisikoez aparte, baloiarekin aritzen


gara, jaurtiketak egiten ditugu, paseak..." Talde hau kadeteetan zegoenean ohorezko mailara igo zen eta gaur egungo taldea jokalariek berberak osatzen dute, bat edo beste izan ezik. Oinarri ezin hobea da, "Mintxetan hazitako taldea baita, eta zelai honetan formazioa oso teknikoa da. Gora heltzeko aukera handia duten jokalariek mordoska bat dago". Sekula ez dago jakiterik jokalariek batek kale ala bale egingo duen baina kalitate ezin hobek eduki badituzte Santiagoren ustez. Haundiren harrobia sendotzea da C.D.aren helburu nagusia. Beheko kategorietan lan gogorra egiten da hori horrela izan dadin eta jubenilen talde hau horren adibide argia baino ez da.



Ohorezko Jubenilen Liga. Atzetik hasita ezkerretik eskuinera: Julen Irizar, Pedro Santiago entrenatzailea, Iker Leonardo, Xabier Elustondo, Aitor Zubiaurre, Iker Polo, Ruben Díez, Javier Guallar eta Jose Inazio Laskurain delegatua. Makurtuta: Ibon Etxaniz, Iñaki Laskurain, Santi Carrascosa, Lorenzo Galeano, Roberto Córdón, Asier Arenas, Iñigo Araujo eta Alex Vigar. Argazkian Ion Galarraga delegatua falta da.

Jai giroan iritsi da Korrika

Zortzi egunez Euskal Herria etengabe zeharkatu ondoren, gaur, hilak 21, eguerdi partera iritsi da Korrika Elgoibarrera. Euskara suspertzeko AEK-k antolatzen duen ekitaldi erraldoi honen testiguari Sig-mako zubian ongi-eto-rria egin zaio. Herriar mordo baten txaloen berotasunean Elgoibarko kaleetako ibilbidea egite-ari ekin dio Korrikaren 10. edizioak.



Duela bi urteko Korrikan Iñaki Konde testigua eramaten.

Testiguen banaketa

Korrikaren etorreraren aurretik, herriko ikastetxe-etako haurrek euren Korrika partikularra izan dute, "Korrika Txikia", alegia. Eguerdiko 12etan Madalako parketik abiatu dira, San Frantzisko kalea, Errosario, Plaza Handia, Santa Ana eta A. Arrillaga zeharkatu ostean, Plaza Handian amaitzeko. Korrika Txikian Pilar, Ikastola eta Herri Eskolako lehen, bigarren eta hirugarren mailako

Aurtengo Korrikan parte hartu duten herriko elkarte, enpresa eta erakundeak asko izan direnez, testiguen erreibuea metro gutxiren ondoren egin da. Hala, hona hemen testiguen txandatzean parte hartu duten herriarren zerrenda: Etxepe lantegia, Morkaiko eta Talde Antimilitarista, LAB, Elgoibarko Izarra, Herri Institutuko ikasleak, Herri Institutuko irakasleak, Gestora eta Senideak, AEK, Pilar, Ikasto-

sozizatutako Felix Etxeberria eta Jose Gurrutxaga (Korrika guztietan partehartzaileak), Kimetz elkarte, Txankakua, Club Deportivo, Haizea Emakume Taldea eta Altzolako ordezkariak.

Aurtengo Korrikaren mezua "euskara berreskuratzeko presa dagoela" azpimarratzea da. Honez gain, AEK-k herritarrak animatu nahi ditu igandean, hilak 23, Bilbon eguerdiko ordu batean izango den Korrikaren azken Kilometroa egitera.



● Hasier Etxeberriak Gabriel Aresti saria irabazi du

Hasier Etxeberria idazle eta kazetari elgoibartarrak euskarazko Gabriel Aresti XIV. Ipuin Lehiaketaren lehen saria irabazi du "Ipuin postmoderno bat egin nahi diot nere buruari" lanari esker. "Umorezko eta ikutu ironikoko ipuina egin nahi izan dut" adierazi zuen idazleak sari banaketa ekitaldian. Bai eta lortu ere. Epaimahaikoen iritziz, "Hasier Etxeberriak ipuin postmoderno bat egiten saiatu ezezik, ipuin postmodernoa egin ere egin du. Ipuinak ederki mantentzen du tramaren tentsioa, gaiak irakurlea inplikatu, inguratu eta erakarri egiten du, azkeanean egoeraren partaide eta konplize bilakatuz". Arte plastikoetan erabiltzen den 'dena da balekoa' esaerari "barre egin nahi izan diot". Hasierrek Zumaiako Julene Azpeitia lehiaketan ipuinen saria irabazi zuen duela gutxi "Horazioren bidaiak" lanarekin eta "Donostia Hiria" sariketan finalista geratu zen. Gabriel Arestiren lehen sariaren 400.000 pta.k baino "estimatu handiagoa diot epaimahaikoez neure lana errekonozitzeari". Epaimahaiko izan dira Jorge Gimenez sariketa honetan irabazle izan zena iaz, Xabier Monasterio literaturan aditua eta Pako Aristi idazlea.



INTERESEKO

OSASUNA

- Anbulategia:
 Larrialdiak 461111
 Txanda hartzeko 743354
 Planning-a 742950
 Alkoholiko Anonimoak 740385
 D.Y.A (anbulantzia) 464622
 Gurutze Gorria 743864
 Mendaroko Ospitalea 756264
 Odol Emaileak 743936

GARRAIOAK

- Eusko Trenbideak 740442
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia 740898

UDALA

- Euskara Zerbitzua 744366
 Udal Kirol Patronatua 744415
 Kultura Zerbitzua 742158
 Mendaroko Udala 756100
 Ongizate zerbitzua 741008
 Udaletxea 741050
 Udaltzaingoa 741394

BESTELAKOAK

- Elgoibarko Izarra 741626
 Kirolegia 744415
 Kontsumo Bulegoa 743088
 Liburutegia 743525
 Musika Eskola 742145
 Mintxeta 744315
 Parrokia 740842
 Postetxea 741547

HIRUGARREN ADINA

- San Lazaro Egoitza 740296
 Zaharren Biltokia 740526

IKASTETXEAK

- Haur Eskola 74 21 41
 Herri Eskola 74 08 79
 I.M.H. 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre 74 02 67
 Ezenarro (Meka) 74 44 80
 Ikastola 74 44 41
 L.H.I. 74 44 80
 Pilar Ikastetxea 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

- BARREN 74 41 12
 El Diario Vasco 74 40 73
 El Correo EspaÑol 74 10 82
 Egin 10 84 21
 Zazpiki irratia 74 34 74

24
astelehena

22:15 ZINEA
 "Donde reside el amor"

28
ostirala

19:30-22:15 ZINEA
 "La verdad sobre perros y gatos"

29
larunbata

19:30-22:15 ZINEA
 "La verdad sobre perros y gatos"

30
igandea

16:30-19:30-22:15
 ZINEA: "La verdad sobre
 perros y gatos"

31
astelehena

22:15 ZINEA:
 "La verdad sobre perros y
 gatos"

22
larunbata

11:30 ZAZPIKIREN
 BILERA
 Ganbaran

17:00 UDABERRI JAIA
 Plaza Handian
 Antolatzailea:
 Atxutxiamaika Begirale
 Taldea

17:00 GURUTZE
 GORRIKO
 GAZTETXOEN
 ANTZERKIA
 Izenburua: "Papalagiak"
 Mekanikan

19:30 ANTZERKIA
 "Florido Pensil" euskaraz
 Herriko Antzokian

22:30 ANTZERKIA
 "Florido Pensil"
 gaztelaniaz
 Herriko Antzokian

23
igandea

16:30-19:30-22:15
 ZINEA
 "Donde reside el amor"

21
ostirala

14:30 KORRIKARI
 ONGI-ETORRIA
 Sigmako zubian

20:00 PARROKI
 ABESBATZAREN
 KONTZERTUA
 Zuzendaria: Laura Bilbao
 Parrokian
 Antolatzailea: Musika eta
 Dantza Fundazioa

22:15 ZINE KLUBA
 "El secreto de la isla de las
 focas"

22:30 "KAFE
 USAINEAN"
 Musika eta artelanak
 Kultur Etxeko sotoan
 Antolatzailea: Elgoibarko
 Izarra

ZIN



Zuzendaria: Jocelyn Moorhouse
 Antzezleak: Winona Ryder, Anne
 Bancroft, Samantha Mathis

Donde reside el amor

Ezkontzekotan dagoen neska ikasle batek, krisi sentimentala dela medio bere amona eta izeba-amonaren etxera joatea erabakitzen du. Amona eta izeba iloba ezkontzen denerako oherako koltxa egiten ari dira. Atse-den uneetan bi emakume hauek bizi izan dituzten esperientzien berri emango diote ezkontzeko dagoen neska gazteari.



● “Kafe usainean” saioa, Kultur Etxean

Elgoibarko Izarra Elkartek “Kafe usainean” egitasmoa jarriko du martxan gaur, hilak 21. Kafe usainean hilean behin izango da, hileko azken ostiralean, eta elgoibartarrak protagonista diren hainbat kultur ekitaldi antolatuko dira gaueko kafearen bueltan. Ekitaldiak Kultur Etxeko so-toan izango dira gaueko 22:30etan hasita. Gaur gauean, Miren Gorrotxategi eta Amaia Gabilondo pianojoleak, Gabi kitarrajolea, Joseba Alonso aho-soinuarekin eta Itxaropenako zortziko bat izango dira musika atalean. Halaber, Mertxe Sueskunen artelanak ere bertan izango dira ikusi eta erosteko aukerarekin.

● Parroki abesbatzaren kontzertua

Gaur, hilak 21, Parroki abesbatzak kontzertua emango du iluntzeko 8etan Parrokian hasiko den saioan. Eskainiko dituen kantak hauexek dira: “Popule meus”, “Aita guirea”, “Regina Colei”, “O bone Jesu”, “Liberame”, “Christus factus”, “Verbum caro”, “Ave Verum”, “Misa Brevis”, eta “Agur Jaunak”.



● “Florido Pensil”, bihar, hilak 22

Tantka antzeztaldearen “Florido Pensil” lana bihar, hilak 22, Herriko Antzokian taularatu da, bi saio ezberdinetan. Arratsaldeko 7:30etan euskarazko emankizuna izango da eta gaueko 22:30etan gaztelaniazkoa. Bietan sarreraren ze batekoa 1.000 pta.koa da.

● Gurutze Gorriko Gazteen antzerkia

Gurutze Gorriko Gazte Taldeko haurrek “Papalagiak” izeneko obra antzeztuko dute larunbatean, hilak 22, arratsaldeko 5etan hasita Mekanikako aretoan. Aipatu lana haurrek idatzi dute eta erropa eta eskenatokia ere eurek prestatua da. Euskaraz izango da antzezlan eta jakinarazi digutenez, herritar guztiak daude gonbidatuak bertara.

TXAN- DAK

FARMAZIAK

	Egunez	Gauez
22	Etxeberria	Etxeberria
23	Etxeberria	Etxeberria
24	Yudego	Yudego
25	Ormazabal	Ormazabal
26	Ormazabal	Anduaga
27	Bidasolo	Bidasolo
28	Anduaga	Anduaga
29	Bidasolo	Bidasolo
30	Bidasolo	Bidasolo
31	Anduaga	Anduaga
1	Etxeberria	Zabaleta
2	Etxeberria	Etxeberria
3	Ormazabal	Escala
4	Bidasolo	Bidasolo

OKINDEGIA

- 23 igandea **Fotero**
- 27 osteguna **Zabaleta**
- 28 ostirala **Fotero**
- 30 igandea **Doña Mercedes**
- 31 astelehena **Eizagirre**

ONGARRI ZINE KLUBA

Ongarri Zine Klubak jakinarazi nahi du asteburu honetan eta hurrengoan, hau da, Aste Santuan, ez dela zine klubik egongo.



Zuzendaria: Michael Lehmann
Antzezlanak: Uma Thurman, Janeane Garofalo, Ben Chaplin

La verdad sobre perros y gatos

Cyano de Bergerac filmearen remake bat da. Edertasun estereotipatuaren inguruko kontakizuna da. Bi neska, elkarren artean adiskideak direnak dira protagonistak. Bata, beterinario eta irrati esataria da eta zatarra da, eta bestea, modelo eder bat. Beterinarioa argazkilari batez maiteminduta dago eta bere lagunaz baliatuko da argazkilariarekin ligatzeko.

Salerosketak

◆ SALDU ◆

- ◆ Errepideko bizikleta bat saltzen da. Orbea etxekoa. Prezioa 15.000 pta. ☎ 74 11 29
- ◆ Vespa motorra salgai. 200 cc. Egoera onean. ☎ 74 24 42
- ◆ Egora onean dagoen piano bat erosiko nuke. 76 56 78 (Goizeko 10etatik 12etara)
- ◆ Suzuki Samurai SS-AF salgai. Egoera normalean. ☎ 907-24 29 25/74 31 81

Etxebizitzak

- ◆ Apartamentua salgai Deban. ☎ 74 12 04 (Gaueko 8etatik 10etara)
- ◆ BX turbo diesel bat salgai. Egoera onean. ☎ 74 40 77 (20:00-22:00, Fermin)
- ◆ Buzeatzeko traje bat saltzen dut. Bi aldiz forratua, 7 mm-takoa eta "Mares" etxekoa. ☎ 74 36 91
- ◆ Bulegorako mobiliarioa salgai. ☎ 74 28 64
- ◆ Idazmakina elektronikoa berria salgai ☎ 74 44 43 (5:30etatik aurrera)
- ◆ MIBI 4X4 etxe-furgoneta bat salgai. Teilatu altzagarria, guztiz ekipatua, estra askorekin. ☎ 76 04 47

Etxebizitzak

- ◆ Etxebizitza unifamiliarra saltzen dut. Duplex adosatua. 40m²-ko sotoa eta 3 fatxada. Prezio interesgarria. ☎ 13 16 83
- ◆ Etxebizitza bat saltzen da Deban. Bista ezinhobeak eta etorkizun handiko lekua. ☎ 19 19 22
- ◆ Pisu bat alokatuko nuke. ☎ 74 19 22
- ◆ Etxea saltzen da San Roken, Arregitorre 12 zenbakian. 3 logela, 2 bainu, jangela, sukaldea, ganbara eta garajea ditu. Erabili gabe dago. ☎ 75 51 77
- ◆ Etxebizitza salgai Erretxindin. Sukaldea, komuna, egongela, lau logela, ganbara eta gas berogailu zentrala. ☎ 74 44 66
- ◆ Pisia daukat saltzeko Santa Ana kalean. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainua ditu eta erreformatua dago. ☎ 74 37 25
- ◆ Etxe bat saltzen da Arregitorre 14an. 9. pisua. 3 gela, egongela, sukaldea eta 2 bainu. Oso eguzkitsua. ☎ 74 01 34
- ◆ Pisia salgai San Antolinen egoera onean. 3 gela, egongela, sukaldea eta bainua. ☎ 12 72 22
- ◆ Pisia salgai San Inazio kalean. 90 m²koa. (9etatik 13etara) ☎ 74 32 04

Lana

◆ ESKAERA ◆

- ◆ Edozein lan mota egiteko prest nago. (Umeak, nagusiak zaindu). ☎ 75 26 75 Mari Karmen
- ◆ Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. ☎ 74 06 09 Marisabel
- ◆ Etxeko lanak egiteko edo nagusiak eta umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat dependienta bezala. ☎ 74 22 78
- ◆ Umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago. ☎ 74 28 43
- ◆ Klinika auxiliarra eta psikiatra auxiliarra gaixoak zaintzeko prest dago. ☎ 74 05 45
- ◆ Neska batek etxeko lanak edo umeak zainduko lituzke. ☎ 74 30 84 (Reme)
- ◆ Haurrak edo nagusiak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 74 22 78
- ◆ Ordenadorez lanak egiten ditut bai enpresentzat eta bai partikularrentzat. Deitu ☎ 74 22 86 zenbakira.

◆ ESKAINTZA ◆

- ◆ Kamarera bat behar dugu jangelarako Plazentzian. Esperientzia eskatzen da eta euskalduna bada hobe. Curriculum-ak bidali 130 postakutxatilara. Soraluze

Agurrak



◆ **Noreen eta Willum:** zuen Luken-en jaiotzean, adiskide eta lan-kide guztien izenean, ILS, IMH eta Gestio Eskolaren partetik, zorionik beroenak!



◆ **Bihar, larunbata,** hilak 22, 8 urte beteko dituen **Igor Ulibarriri** zorionak etxekoentz.



◆ **Zorionak Iruene Martinez-i** gaur, hilak 21, 9 urte bete dituelako. Guraso eta ahizparen partez.



◆ **Isaac Bilbatuari** zorionak gaur, hilak 21, 7 urte bete dituelako. Eneritz eta osaba-izeben partez.




◆ **Zorionak Satxa Sanchez-i,** nahiz eta Mallorcan egon, pasa den martxoaren 20an 15 urte bete zituelako. Aitonamona, osaba izeba eta bereziki lehengusina Aitziberren partez.



◆ **Unai Ortuosteri** zorionak hिलaren 30ean 2 urte beteko dituelako familia osoaren partez



◆ **Zorionak Veronicari** hилaren 22an 12 urte beteko dituelako. guraso eta ahizparen partez.



◆ **Super-zorionak Amaia Gorostizari** hилaren 19an 33 urte egin zituelako. Zure alabaren partez.

◆ **Zorionak Jose Del Valle-ri** hилaren 19an urteak bete zituelako. Iloba Iraitzen partez.

Partikularrak

- ◆ Euskarazko eta Lehen Hezkuntzako partikularrak ematen dira. Talde txikiak. ☎ 74 09 72 Garikoitz
- ◆ Matematika, kontabilitatea, praktika administratiboak, kosteen kontabilitatea eta abarri buruzko klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak eta talde mugatuak. Esperientzia dut. ☎ 74 21 65 Javi
- ◆ Ingeleseko partikularrak emango nituzke, bai eta itzulpenak egin ere. ☎ 74 15 82 Edu

Garajeak

- ◆ Garaje itxi bat saltzen da Arregitorren. ☎ 74 12 53
- ◆ Garaje bat salgai Leku-Ederreko 4. solairuan. (9etatik 13etara) ☎ 74 32 04
- ◆ Garaje itxi bat saltzen dut Arregitorren. ☎ 74 34 10

Bestelakoak

- ◆ Hozkailu bat hartuko luke Caritas-ek. ☎ 74 15 09/74 12 57
- ◆ Hilaren 14an, ostirala, Casio markako erloju bat galdu nuen Mekanika inguruan. ☎ 74 38 41
- ◆ Haurrik gabeko senar-emazteak pisua behar du alogeran. Ahal bada altzariek. ☎ 75 62 18
- ◆ Martxoaren 9an, "Lima del Himalaya" motako txoriak ihes egin zuen Institutu ingurutik. Txoria beltza da, moko eta hanka horiekin. Txistu ugari jotzen du eta hitz solteak esaten ditu. Inork jaso bado dei dezala, mesedez. Sarituko da. ☎ 74 26 88
- ◆ Harri bitxiak dituen urrezko pultsera bat galdu nuen. Sarituko da. ☎ 74 18 33
- ◆ Caritas-ek egongelarako armairu bat hartuko luke. ☎ 74 15 09 / 74 12 57
- ◆ Bi katakume oparituko nituzke. Bata arra eta beste emea. ☎ 74 23 33 (Belen)

Agurrak

- ◆ **Zorionak David Rodriguezi** martxoaren 23an 12 urte egingo dituelako guraso eta arrebaren partez.
- ◆ **Milaka kilo zorion Kristina Arrillagari** martxoaren 24an 16 urte beteko dituelako. Bere besoetako Itziar eta Santa Ana kaleko familiaren partez.
- ◆ **Zorionak Tomás Cano eta Isabel Ruiz-i,** hилaren 25ean ezkondu zirela 60 urte beteko dituztelako. Familia eta bilobaren partez.
- ◆ **Hi ññaki!** I am Victoria. How are you? Happy birthday. Bueno, zorionak pasa den ostegunean 14 urte bete zituelako.
- ◆ **Zorionak Iñigo León-i** joan den astean 14 urte bete zituelako. Gehiago bete ditazula. Zure gelako neske.
- ◆ **Zorionak Itxaso Egañari** martxoaren 16an 6 urte egin zituelako. Ainhoaren partez. ◆ **Zorionak Juan Mari Urangari** bihar 31 urte beteko dituelako bere iloba Koldo eta Itziarren partez.

LEKU-EDER ETXEBIZITZAK

LOKAL KOMERTZIALAK ETA GARAJEAK SALGAI



Etxebizitza bakarra

gelditzen zaigu

**EZ GALDU
AUKERA HAU!**

**INFORMAZIOA
ETA SALMENTA:**

20 83 16

UDABERRI JAIA

martxoaren 22an, larunbata

5,30: Plaza Handian elkartu

Jolasak eta txalaparta ikasteko aukera

8,30: Afaria (bakoitzak berea ekarri beharko du)

9,00: Trikitilariekin dantzaldia

10,00: Amaiera

*Zatoz udaberriari
ongi-etorria ematera!*

OHARRA: Eguraldi baxra
eginez gero, Institutuko
gimnasioan ospatuko dugu
Udaberri jaia.



Gremioen gida honetan azaldu
nahi baduzu, deitu !

☎ 74 37 04

AROSZTEGIAK

BIENA
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 74 31 16

GARCIA
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 74 32 38

JUARISTI
Leihoak-Armairu
enpotratuak
Santa Ana, 18
☎ 74 29 94

LODOSO
Leihoak
Ermuaranbide, 16
☎ 74 34 90

SORALUZE
Leihoak-Armairu
enpotratuak
Santa Ana, 3
☎ 74 36 34

ULAZIA
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 74 05 47

ZABALA
Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea 16
☎ 74 03 96

LUIS F. BERISTAIN
Artetxe, 1
☎ 909 42 68 19

ITURGINTZA

ANGEL
Santa Ana, 5
☎ 74 17 61

JAVI
Erretxindi, 1
☎ 74 14 80

JUAN CARLOS S.L.
Urasandi 59-61, behea
☎ 74 34 87

PAGOAGA
San Antolin kalea, 13
☎ 74 02 79

ZALDUA
Urasandi, 26
☎ 74 05 30

ZUBIZARRETA
Ubitarte, 5
☎ 74 07 89
☎ 908 14 30 40

IGELTSERITZA

KIDEOK S.L.
San Roke, 17
☎ 74 34 86
☎ 989 58 37 61

ANTONIO MARKEZ
Urasandi, 24
☎ 74 34 18

PATXILLO
Pedro Muguruza, 13-5
☎ 908 31 96 42

PINTURAK

PINTURAS ELGOIBAR
FERMIN
Urasandi, 57-3
☎ 74 39 91
☎ 909 76 28 80

JOSE PINTURAK
San Bartolome, 28
☎ 74 12 55
☎ 929 44 23 14

ELEKTRIZITATEA

ARAMAR
Morkaiko, 1
☎ 74 12 80

AZPELETA
San Frantzisko, 51
☎ 74 12 38

BETI ARGI
Errosario, 6
☎ 74 16 44

URZELAI
Santa Ana, 12
☎ 74 13 76

ISOLAMENDUAK

GLAS CONTROL S.L.
Inpermeabilizazioak
Ubitarte, 7
☎ 74 30 94